

## **BIRGAIKUNTZAK HIRIGINTZAREN ERRONKA POLITIKO GISA DUEN EGITEKOARI BURUZKO JARDUNALDIKO ONDORIOAK**

Gaurko jardunaldian, gizartearen premiengatik nahiz gizarteari, ekonomiari eta ingurumenari ekartzen dizkion onurengatik hirigintza-birgaikuntzaren jarduera sustatzeko argudio on batzuk entzun ditugu.

Birgaikuntzak hirigintza-politika gisa duen garrantzia mahaigaineratzen eta ikusarazten saiatu gara.

Desberdintasunerako joera etengabea izan da hiriaren historian zehar. Hiriak sortzen eta garatzen direnean, gizarte-desberdintasunak sortzen dira, eta desberdintasun horiek gutxitu egin behar dira birbanaketarako eta hirigintza-plangintzarako politika publikoen bidez.

Hiriko auzo txiroenei arreta berezia eskaintzea da giltza. Izan ere, arazoaren muinari heltzen ez badiogu, eremu horietan krisia nagusituko da, eta bazterketa ekar dezakeen narriadura sozial eta funtzionala gerta daiteke.

Ondorio hauen artean, balio handikoak diren oinarritzko zenbait ideia azpimarratu nahi nituzke:

- Hirigintza-birgaikuntza, bai auzoetako esku-hartze gisa eta bai hiri-berroneratze gisa ulertuta, hirigintzaren ahizpa txikitat jo izan da orain arte, etxebizitza-planetan nahiz udaletako hirigintza-planetan.
- Aitortu beharra dago, hala ere, Euskal Autonomia Erkidegoak sentikortasun berezia erakutsi duela gai honi dagokionez, anbizio handirik gabe egokitu den 1983ko Dekretu zahar bati helduz. Horren erakusgarri dira udaletako hirigintza-tresnak (Birgaikuntza Plan Bereziak). Alde Zaharrak birgaitzeko eta gizartearen eta hiriaren ikuspegitik narriatuta zeuden eremuak pixkanaka

leheneratzeko sortu ziren Plan horiek, eta Birgaikuntzako Hirigintza Sozietateak arduratzen dira haiek kudeatzeaz.

Tresna horren erabilera, ordea, Alde Zaharretara mugatu da. Auzo eta etxebizitza berriak sortzeko hiri-garapenek hirigintza-espektroa suntsitu dute, eta auzo osoak etxe berriak egiteko eraistea ere ontzat eman izan da.

- Oin berriko hiri-garapen horiek jasanezinak zirela edo baliabideak agortzen ari zirela jakinda ere, hori ez zen nahikoa izan gauzak aldatzeko edo balantza orekatzeko.

Hain zuzen ere, espazio publikoko eraikinen gabeziak azaleratzen hasi dira hiri inguruko leku askotan, bai eta arazo sozialak nahiz ekonomikoak ere.

- Krisi ekonomiko honek finantzetan hondamena eragin duen arte, hiriak etengabe hazten jarraitu du.
- Horregatik, egoerara egokitu beharra daukaten enpresa sustatzaile eta eraikitzaileen salbatzaile gisa hirigintza-birgaikuntzak bete duen eginkizunaz ari garenean –beste ekonomia-krisi batzuetan ere gertatu da gauza bera-, ez dugu pentsatu behar aurrerantzean hirigintza-ildo hori nagusituko denik. Aitzitik, ekonomiak ahalbidetu bezain laster, hirigintza-jarduketa horietako bakoitza aurreko egoerara itzuliko da, alegia, desorekara.
- Batzuetan, gertatzen dena da udal-lurraldea agortuta dagoela, eta azken aukera gisa hirigintza-birgaikuntzara jotzen dela.
- Alabaina, udalerrri batean birgaikuntza-politikak ezartzearen arrazoiak edonolakoak izanda ere, birgaikuntzaren aldeko argudio sozialak, ekonomikoak eta ingurumenaren arlokoak entzuteko aukera izan dugu gaur.

- Udalak berrikusten ari dira hiri finkatuko esku-hartzeak. Izan ere, orain baliabide gutxiago daude eta hiriko desberdintasunak handitu egin dira, aldirietan batez ere. Hori dela eta, tartean dauden eragile guztiak kontuan hartzen dituzten birgaikuntza-planak eta programak abiarazi behar dira arazo konplexu horiei heltzeko.

Udalek **Hiri Berroneratze Integraturantz** jo behar dute. Hain zuzen ere, **jarduketa global** bat burutu behar da, eremu bateko baldintza ekonomiko, fisiko eta sozialak nahiz ingurumenarekin loturikoak **modu iraunkorrean** hobetuko dituenak, eragileen parte-hartzeari esker.

Hiriko ingurumenean esku hartzea

Hirigintza

Etxebizitza

Sozioekonomia

- Eta, azkenik, birgaikuntza hirigintzaren erronka politiko gisa defendatzeko beste argudioren bat eman nahi nuke:

- **EUROPA:**

- Hiri-garapenerako Europako politikek estrategia erabakigarriak ezarri dituzte Europako hiriak lehiakorrago egiteko, hiriaren testuinguru orokorraren barruan auzo txiroenei arreta berezia eskainiz.

Ingurumenarekin, gizartearekin eta ekonomiarekin loturiko xedeak birgaitzeko plangintzaren eta hiri-kudeaketaren bidez batera daitezke. Administrazio Publiko guztientzat 2020 Europako Estrategiak betebehar hori ezartzen du (zehazki, **2020 Europako Estrategiaren ezarpenerako 2010eko Ekainaren 21eko Toledoko Adierazpenak**), zentzuzkoagoa, iraunkorragoa eta gizartearen ikuspegitik inklusiboagoa den hiri-garapena lortzeko.

○ **ARAU-ESPARRUA:**

- Ekonomia iraunkorraren legea, birgaikuntza sustatzeko Legegintzako 8/2001 Errege Dekretua.  
Hirigintza-politika birgaikuntzarantz bideratzeko oinarriak finkatu dituzte lege horiek.  
Duela urte batzuk, etxebizitzarako eskubide subjektiboak Administrazio Publiko guztientzat zeukan esanahia zen eztabaida politikoaren muina. Egungo araudiak kontuan izanik, badirudi egoera aldatu egin dela. Izan ere, etxebizitza duina eta egokia edukitzeko eskubideari helduta, baliabiderik ez duen norbaitek bere etxebizitza birgai dezatela eskatzeko eskubiderik ote duen eztabaidatzen ari gara orain.  
Etxebizitzarako eskubideari buruzko beste ikuspegi bat izango litzateke hori, anbizio handikoa, eta birgaikuntza-politikek edukiz horni dezaketena.

○ **AUKERAK:**

- Hiri finkatuan esku hartzea lehentasuna da, bai, baina zeregin zaila ere bai. Orain baliabide gutxiago daude, eta hiriko desberdintasunak handitu egin dira, aldirietan batez ere. Hori dela eta, hiriak guztiz birgaitzeko politikak abiarazi behar dira arazo konplexu horiek konpontzeko eta baldintza fisiko, sozial eta ekonomikoak nahiz ingurumenarekin loturikoak modu iraunkorrean hobetzeko. Garai zail hauetan, badirudi arlo publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzak dela politika publikoak aurrera eramateko panazea. Hirigintza-birgaikuntza da horren adibiderik onena. Hirigintza-birgaikuntzan, eraikitako ondasuna zaintzeko eta hobetzeko betebeharra eraikin horren jabeei

dagokie. Beraz, zentzu horretan, jabeek partaidetza handia dute udal-politikan.

- Birgaikuntzaren arloan dihardutenek “hiri-zaurgarritasuna” delakoa antzeman dezakete, hau da, hauskortasun sozial eta ekonomikoa, eta baita teknikoa ere. Tresna horren bidez arazoa konpon daiteke.
- Ziur nago **beren bizi-kalitatea hobetzea** dela herritarrek udal-politikei eskatzen dietena. Eta bizi-kalitate horrek, eskumenen aldetik guri dagokigunean, eraikinak birgaitzea eskatzen du, alegia, eraikinen irisgarritasun- nahiz iraunkortasun-baldintzei eustea.

Izan ere, ez dugu ahaztu behar obra bat egiteko Jabeen Erkidegoa antolatu behar dela; bizikidetza egokia berrezarri eta bultzatu behar dela, eraikinetik eraikinera. Bizikidetzak kaleari eragiten dio lehenik, auzoari bigarrenik, eta, azkenik, udalerrri osoari.

Bilbon, 2012ko otsailaren 15ean

**Dña. Marta Ibarbia (SUR Euskadi)**